

Herritartasuna aztergai: zer diote Hego Euskal Herriko gizarte-mugimenduek?

Maddalen Epelde Juaristi, Julen Zabalo Bilbao, Iker Iraola Arretxe, Noemi Bergantiños Franco, Marina Sagastizabal Emilio-Yus
UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakasleak

Herritartasuna, izatez, kontzeptu aldakor eta eztabaidatua da. Hego Euskal Herriko gizarte-mugimenduek herritartasunaz garatzen duten diskurtsoa aztertzea da artikulu honen helburua. Ikuspegi kualitatibo batetik, feminismoan, euskalgintzan, migrazioen mugimenduan edota sozioekologian aritzen diren kideen iritziak aztertuz, mahaigaineratzen den ondorio nagusia da gizarte-mugimenduek herritartasun subjektiboa eta kolektiboa lehenesten dutela. Euskal Herriaren kasuan, afera horri herritartasunaren eta naziotasunaren arteko hartu-eman konplexua ere gehitzen zaio: Estatu-mailako euskal herritartasun objektibo ofizialik ez da existitzen, eta horrek herritartasunari buruzko eztabaida areagotzen du.

GAKO-HITZAK: Herritartasuna · Gizarte-mugimenduak · Naziotasuna · Euskal Herria.

Analysing citizenship: what do the social movements in the Southern Basque Country say?

Citizenship is a changing and controversial concept. The aim of this article is to analyze the discourse of social movements in the Southern Basque Country on citizenship. From a qualitative point of view and after analyzing the opinions of members involved in feminism, in Basque language normalization movements, in migration movements and socio-ecology, the main conclusion is that social movements prioritize subjective and collective citizenship. In the case of the Basque Country, this issue is also joined by the complex relationship between citizenship and nationality: there is no official objective Basque citizenship at the state level, which intensifies the debate on citizenship.

KEY WORDS: Citizenship · Social movements · Nationality · Basque Country.

1. Sarrera

Askotan ezkutuan eta garrantzi handirik edukiko ez balu bezala pasatzen da herritartasuna. Gutxitan gogoratzen gara hartaz, eta are gutxiago hari buruz eztabaidatu, ezbaierik ez duen kontzeptu administratibotzat jotzen baitugu normalean. Etorकिनak eta errefuxiatuak ugaritu diren neurrian, ordea, iritzi kontrajarriak agertu dira: batzuek herritartasun-eskubidea zabaldu nahi dute, eta beste muturrean, aldiz, guztiz itxi. Konturatzen gara, orduan, iritzi desberdinak jaso ditzakeen kontzeptu batez ari garela eta herritartasuna modu desberdinetan uler daitekeela¹.

Iritzi desberdin horien artean, oso markatua da gizarte-mugimenduen, herritarra modu jakin batean ulertzen baitute: eskubideak ditu, baina baita betebeharrak ere, eta jarrera jakin batzuk garatu behar ditu. Baina desberdintasunak ere antzeman daitezke mugimenduen artean, horietako bakoitzak helburu desberdinak dituen heinean. Ez hori bakarrik, aztertuko dugun markoan, Estaturik ez duen nazionalismo batek eragiten du indar handiz, eta horrek halabeharrez eragiten du herritartasuna ulertzeko moduan. Askotan batera ulertzen badira ere, herritartasuna eta naziotasuna bereizi behar dira.

Testuinguru konplexu horretan, herritartasunaren inguruko ezagutza sakonagoa lortzea nahi izan da esku artean dugun lanaren bitartez, Euskal Herrian kokatuta eta esparru politikoan duten eraginagatik (eta, beraz, herritartasunaren gaian) gizarte-mugimenduetara ekarrita. Horrenbestez, Hego Euskal Herriko zenbait mugimendu sozialetan (feminismoa, sozioekologia, euskalgintza, migrazioak) parte hartzen duten pertsonekin elkarrizketak egin dira, baita talde-eztabaida bat ere. Horiek herritartasunaz garatzen duten diskurtso nagusia arakatzeko asmoz, bi ardatz izan ditugu kontuan: herritartasunaren alderdi objektiboa edo subjektiboa, batetik, eta izaera indibiduala edo kolektiboa, bestetik.

2. Herritartasuna eta gizarte-mugimenduak

Herritartasuna kontzeptu aldakorra dela esan dugunez, hurrengo lerroetan beratu definitzen saiatuko gara; batik bat, gizarte-mugimenduek nola ulertzen duten azaltzera mugatuko gara, eta hori dena Hego Euskal Herriko agertokian.

2.1. Herritartasun kontzeptuaz

Herritartasuna² Mendebaldeko iraultza liberalerik lotzen zaie, horien eraginez herritartasun kontzeptua garatu, hainbat eskubide ezarri, eta nazio zein Estatu modernoak sortu baitziren. Frantziako Iraultza, AEBko Independentzia Gerra eta

1. Lan hau honako proiektuari lotuta dago: *Nuevas solidaridades, reciprocidades y alianzas: la emergencia de espacios colaborativos y redefinición de la ciudadanía* (MINECO, CSO2017-82903-R kodea; 2018-2021 aldia).

2. Jatorrizko hitza *hiri*-tik eratortzen da: frantsesez *citoyenneté*. Gaztelaniaz (*ciudadanía*) eta ingelesez (*citizenship*) jatorri horri eusten zaio. Baina euskaraz, arrazoi desberdinak direla eta (ideologikoak batzuetan, hizkuntzari lotutakoak besteetan), zalantza egon da hitza sortzeko momentuan: *hiritartasuna* eta *herritartasuna* erabili dira azken urteotan. Are gehiago, oso ohikoa ez bada ere, zenbaitetan esangura desberdina eman nahi izan zaie. Lan honetan biak sinonimo gisa ulertuko ditugu, eta kasu guztietan *herritar* eta *herritartasun* hitzak erabiliko ditugu.

Ingalaterrako Gerra Zibila (1642-1651 tartekoa, Ingalaterrako Iraultza izenez ere ezagutzen dena) dira horren adierazle nagusiak (kontzeptuaren ikuspegi historiko baterako, ikus Apalategi, 1992c; edo Isin eta Turner, 2007).

Antzinako Erregimenetik gizarte modernora doan trantsizioa irudikatzen dute gertaera hauek: herritarrek dagoeneko ez dute jainko kristauak izendatutako errege baten beharrik izango, pertsona guztiak berdinak direla aitortuko baita, eta herritarrek euren buruak gobernatzeko gaitasunean sinistuko baitute. Horretarako, beharrezkoa zen joko-arau berriak ezartzea, eta hori ustezko «Kontratu Sozial» baten bidez lortu zen: herritarrek kontratu horren sinatzaileak direla pentsatu zen, eta kontratuaren bitartez norbanakoa gobernu legitimatzeko giltza bihurtzen zela (Phillips, 1991).

Hura ez zen erreala, haatik, norbanako guztiek ezin baitzuten kontratuan parte hartu. Beharrezkoa zen ezaugarri batzuk betetzea, eta baldintza horiek betetzen ez zituztenak herritartasun-eredu eta antolaketa politiko berri hartatik at kokatuta geratzen ziren. Hori dela eta, ideia honek kritika teoriko ugari jaso ditu hasieratik, besteak beste feminismotik. 1988an eginiko kritikan, Patemanek (2018) agerian utzi zuen iraultza liberalek defendatutako berdintasun-printzipioak herritarren erdiak baino gehiago kanpoan uzten zituela. Izan ere, herritar gisa kontsideratua izateko eta kontratu sozialean parte hartzeko, jabetza pribatua beharrezkoa baitzen (Cornell eta Benhabib, 1990).

Edozein modutan ere, ideia horrek aurrera egin zuen, eta garatzen joan da bai testuinguru berrietara moldatu behar zelako, bai kontratutik at geratzen ziren sektoreek aldarrikapenak egiten zituztelako, kontratuaren onurak sektore gehiagotara zabaltzeko nahian (Domènech, 2019). Garapenari dagokionez, klasikoa egin den Thomas H. Marshallen azalpenean, herritartasunak hiru etapa ezagutu ditu: lehenengoan, XVII. eta XVIII. mendeen artean, eskubide zibilak garatu ziren; bigarrenean, sufragioaren bitartez, eskubide politikoak instituzionalizatu; eta, hirugarrenean, eskubide sozialak garatu dira (Marshall, 1997; Isin eta Turner, 2007).

Hirugarren fase hori XX. mendearen erdialdean kokatu ohi da, Ongizate Estatuaren garapenarekin batera. Thomas H. Marshall (1893-1982) soziologoak proposatutako «hiritartasun soziala» eredu liberalaren eskubideetan oinarritzen da. Hiru modu aurreikusten zituen eskubide sozialetara sarbidea izateko: nazionalitatea, enplegu formala eta familia tradizionalen oinarritutako maskulinitatea (Alonso, 2007). Eskema horretan aurrerapauso nabaria dagoela ulertzen da, jabetza pribatua oinarritutako ereduaren aldean, baina herritartasun-eredu horrek hainbat subjektu bazterrean uzten jarraitzen du: emakumeak, lan-merkatu formalean parte hartzen ez duten pertsonak, etorkinak, nazio-estatuko kultura ofizialetik at daudenak eta abar (ikus Pateman, 2018; Lewis, 2002; Alonso, 2007; Soysal, 2010; Sayad, 2010; Zapata-Barrero, 2004).

Isin eta Turner-en (2007) arabera, pentsamendu politiko modernoak arreata nagusia Estatuari lotutako herritarren eskubide eta betebeharretan jarri bazuen ere, pentsamendu sozial modernoak, aldiz, egitura sozialean jarri zuen arreata; bereziki, herritarren eskubide formalak mugatzen zituzten egituretan (klasea, generoa eta arraza, batik bat). Autore horien esanetan, herritartasunari lotutako aldarriak

eta eskakizunak bi printzipioren inguruan garatu dira, bai teoria sozialean, bai mugimenduetan: birbanaketa eta aitortza.

Azken hamarkadetan hainbat aldaketa jazo dira herritartasun sozialaren testuinguruan, batik bat globalizazioari, neoliberalismoari eta Ongizate Estatuaren krisiari lotutakoak. Globalizazioaren aro berrian «herritartasun globala» (ikus Feixa, Pereira eta Juris, 2009) kontzeptua zabaltzen ari da, eta horrek herritartasuna hiru norabidetan eraldatzen eta mugitzen ari dela seinalatzen du: lehenengoak, eskubide eta betebeharrak ekonomiko zein kulturelei egiten die erreferentzia (hots, «herritartasun kulturala»-ren baitan garatu diren hainbat printzipio: identitatearekin, posizio sozialarekin, irudipen kulturelekin, pertenezia-sentimenduekin... erlazionatutako ideiak dira (Lister, 2007)); bigarrenak, komunikazio-teknologia berrien zabalpenari erreparatzen dio (indarra hartu baitute herritartasun-instituzio klasikoaren artean, esan nahi baita eskolan, instituzio politikoetan eta gizarte zibilean); eta hirugarrenak nazio-estatu eraikuntza klasikoari dimentsio transnazionala gehitzen dio.

Are gehiago, transnazionalismoaren teoriak seinalatzen duenez (adibidez, Vertovec, 1999), migrazio-mugimendu globalizatuak eta teknologia berriek mugak sistema kolokan jarri dute bi norabidetan: kanpotik etorritakoekin jatorri eta kultura-nahaste etengabea sortzen da, baina era berean, ez da jatorriko herriekin harremana galtzen, eta kanpoan bizi direnek jarraitzen dute nazio-komunitatea osatzen.

Horretaz guztiaz gain, gizarte-mugimenduekin harremanetan, herritartasunak sarri dimentsio subjektiboa hartu du eta horrela adierazi da hainbat ekarpenetan. Batzuek eguneroko praktika gisa ulertzea edo aztertzea proposatzen dute (Lister, 2007); beste batzuek, definizio abstraktutik harago, herritartasuna maila lokalean eta eguneroko erlazioen bitartez eraikitzen dela defendatzen dute, herritartasuna bizi garen tokian errotzen dela ulertuz (Purcell, 2003; Islar eta Irgil, 2018). Badira, era berean, herritartasunaren alderdi emozionalari garrantzia ematen diotenak (Wood, 2013), herritartasuna pertenezia-sentimendu zein agentzia gisa ulertuz (Taylor eta Wilson, 2004), edota norberaren identitate politikoa eraikitzeko formula gisa identifikatzen dutenak (Feixa, Pereira eta Juris, 2009).

Dimentsio subjektiboaren barruan, aipamen berezia egin behar zaio naziotasun kontzeptuari. Kontzeptu bien arteko hartu-emana sakona da; esaterako, Estatuak emandako herritartasunari *naziotasun* deitu ohi zaio. Naziotasuna herritartasuna lortzeko baldintzen multzotzat hartzen da, Europako testuinguruan bederen herritartasunerako baldintza nazioko kide izatea baita (ikus Gil, 2006: 64-67; Triandafyllidou, 2001). Areago, nazio-estatuak nazioa, Estatu eta herritartasuna parekatzeko saiakera egiten dute, herritartasunak erreferentzia egiten dion *demosa* kulturalki homogeneoa balitz bezala, praktikan herritartasuna eta naziotasuna parekatuz horrela (Zapata-Barrero, 2004: 28).

Naziotasuna, berez, nazio batekiko atxikimendu subjektiboa litzateke, eta nazio-estatu klasikoak herritartasunari falta zaion atxikimendu beroa txertatzeko erabili du, sinboloen bidez, esate baterako (egunerokotasunean atxikimendua lortzeko erabiltzen diren baliabideez, ikus Billig, 1995). Nazioa herritartasunari loturik agertzeak bigarrenaren *lokalizazioa* eta mugaketa ekarri du; hau da,

herritartasun-eskubideak Estatuaren mugetan aplikatzen dira, eta naziokide gisa ageri direnei bakarrik, kasuan kasu azpimarratzen diren ezaugarriak aldatzen diren arren. Herritartasuna ikuspuntu etnozentrizko ulertzen da horrela, sektore handiak eskubidetik at geratzen baitira (etorkinak, besteak beste). Ildo horretan, Soysal-ek (2010) dio nazio-estatu atzeritarrak kanporatzeko etengabeko ahaleginetan dabilela, bere logika «itxitura»rena baita. Izan ere, *bestetasun* hori eraikiz lurralde barruko *Gu*-a indartzen da aldi berean (Triandafyllidou, 2001).

Herritartasunak, bada, komunitate bati egiten dio erreferentzia, dela lurralde batean bizi delako, edota ezaugarri zehatz batzuen jabe delako. Herrialdez herrialde, beraz, ereduak ugariak dira, eta herritartasun ofizialetik at kokatutako biztanleekiko —immigrantetzat hartuak direnekiko, esaterako— Estatuak jarrera desberdinak har ditzake, herritartasuna eskuratzeko bideak emanez edo, aitzitik, oztopatuz. Aukera horiekin lotuta doaz immigrazioaren harrerarako ereduak, maiz kulturaren esparrura mugatu ohi direnak (Cachón, 2009: 262). Horien artean, aipa daitezke asimilazioa —eremu publikoan nazio-estatuaren kultura hegemonikoa ardatz hartzen duena—, edota eredu pluralisten artean —kulturaren aniztasuna balio positibotzat hartzen dutenak— multikulturalismoa eta kulturartekotasuna (ikus López, 2005; ereduok hezkuntzan duten islarako, ikus Imaz, 2019).

Herritartasuna, beraz, testuinguru historikoaren arabera aldatuz doan kontzeptu dinamikoa da, forma eta estrategia ezberdinen bitartez garatuz joan dena. Herritartasunak alderdi objektiboago bat barnebiltzen du, eskubide indibidual zein kolektiboen aitortzari lotutakoa, eta alderdi subjektiboago bat, eguneroko praktikei, pertenezia-sentimenduei, zein identitatei lotutakoa. Arlo subjektibo hori gizarte-mugimenduen eskutik etorri zaio, neurri handi batean.

2.2. Gizarte-mugimenduak European

1960ko hamarkadatik aurrera Gizarte Mugimendu Berriez hitz egiten da. Bakezaletasuna, ekologismoa, feminismoa, gazte-errebindikazioak... modu autonomoan garatzen dira urte horietatik aurrera, eta bakoitzak bere problematika berezia jartzen du erdigunean (ikus adibidez, Offe, 1988). Pluralean aipatzen dira, gai asko eta intentsitate desberdinez jorratzen direlako, lekuaren arabera. Eta «berriak» direla esaten da, ordura arte langile-mugimenduak zuen hegemoniatik at sortzen direlako (Martinez, Casado eta Ibarra, 2012). Beste batzuek, ordea, ezbaian jartzen dute ustezko berritasuna, XIX. mendetik zetozen mugimenduen jarraipena eta egokitzapena besterik ez baitute ikusten (ikus Santos, 1998; gizarte-mugimenduez oro har, ikus Tilly eta Wood, 2009). Edozein modutan, zalantzarik gabeko protagonismoa eduki dute gizartean, eta eragin handikoak izan dira arlo politikoan ere, herritarren iritzia bideratu dutelako. Pentsa dezagun bakezaletasunak Gerra Hotzean eduki zuen eragina, edo mugimendu antinuklearrak hainbat Estatutan egindako presioa (oro har, kontzeptura hurbiltzeko, ikus Apalategi, 1992-b, eta 1999).

Santosi jarraikiz (1998), jatorrian kapitalismoaren zein sozialismoaren aldetik hautematen ziren modernitatearen gehiegikeriak salatzea zen mugimendu hauek zekarten berritasuna. Horien aurrean, haien ezaugarri nagusietakoa subjektibitatea

da, emantzipazioa norberak landu behar duela aldarrikatuta (ikus Pleyers, 2019; Santos, 1998). Menderakuntza era guztien kontra eginez, ez dute haien arteko mailakatzerik egin nahi; aitzitik, mugimendu bakoitzak bere gaiari ekiten dio, beste baten pean egon behar gabe. Horregatik, emantzipazioa bai produkzio-harremanetan eta bai etxean (edo eremu erreproduktiboan) landu behar dela ulertuko da (Martinez, Casado eta Ibarra, 2012).

Beraz, ez dago alde zuzenetik ezarritako eraldaketaren subjektu nagusirik, eta, aldiz, eraldaketa eguneroko praktiketatik abiatuko dela ulertzen da, etorkizuneko ustezko aldaketa estrukturalaren zain egon gabe. Sozialismotik gehiago bereiziz, gainera, ez dute normalean klase-analisirik egiten, eta langile-mugimenduari kritika zorrotza bideratzen diote: klase-menderakuntzan oinarritzen ez den beste errealitatearik edo subjekturik aintzat hartu ez izana, alegia. Urteetako bilakaeran kritikak beste mugimendu batzuetara ere bideratu ziren. Mugimendu feministaren barruan, esaterako, emakumea subjektu nagusi gisa ulertzea ezbaian jarri da, bestelako menderakuntzak kontuan ez hartzea leporatu baitzaio.

Unibokotasunaren aurrean, aniztasuna aldarrikatzen dute mugimendu hauek. Aniztasuna zaindu beharreko balio gisa ageri da, hala naturan (espezie guztiak zaindu behar dira), nola gizakien kulturean: identitateak edo hizkuntzak. Ideien bilakaeraz gain, teknologia ere oso garrantzitsua bihurtu da mugimendu hauetan, kideen arteko loturak erraztu baitira. Ildo horretan, 2000. urtetik aurrera *new-new social movements* gisa ere izendatu dira globalizazioaren eta ziberkulturearen aroan garatutako praktika kolektibo berri hauek (Feixa, Pereira eta Juris, 2009).

Hala ere, eta esanak esan, mugimendu hauek ezkerreari eta sozialismoari loturik agertu dira askotan Europan. Oro har, sozialismoari egiten zitzaizkion kritikek tirabirak sortu dituzte behin baino gehiagotan ezkerrearen eta mugimendu hauen artean, baina elkarlan luzea ere gertatu da, ezker erradikalenarekin batez ere. Era horretara, ezkerreko indar batzuek lotura handia dute gizarte-mugimendu batzuetako sektore erradikalekin, eta aliantza horretatik klase-ikuspuntua txertatu nahi izan zaie gizarte-mugimenduen erreibindikazioei, nahiz eta,aldi berean, klasearen barruan existitzen diren tentsioak ere —generoari eta arrazari loturik, adibidez— kontuan hartu behar direla ohartarazi (Mezzadra eta Neumann, 2019: 49 eta hurr.).

Hau dena ondo islatzen da Euskal Herriko agertokian. Historikoki, Hego Euskal Herriaren batez ere, ezkerreko eragin handia eduki du gizarte-mugimenduetan, ezker abertzalearen indarragatik. Tirabirarik ere ez da falta izan, halako moldez non XX. mendeko azken hamarkadetan egituraketa paraleloa sortu baitzen mugimendu askotan: ildo bat ezker abertzaleari lotua, eta bestea autonomoago jokatu nahi zuena, ezkerreko beste indar txikiago batzuei ere lotua, batzuetan (XX. mendearen amaierako gizarte-mugimenduen inguruan, ikus Apalategi, 1992a).

Giroa apalduz joan da XXI. mendean, ordea, Euskal Herriko egoera politikoa lasaitu, eta instituzioen, eragile sozial eta politikoen eta gizarte-mugimenduen arteko harremanak ere aldatuz joan diren neurrian. Hau da, alde batetik, instituzioek gizarte-mugimenduen eskaera batzuk jaso dituzte, eta horrek ekarri du gizarte-mugimendu batzuek ahalegin handiagoa egitea instituzioekin lankidetzara jorratzeko; eta bestetik,

ezkerreko alderdien aldetik, nabaritzen da joera bat gizarte-mugimenduen norabidea ez kontrolatzeko, nahiz eta horrek ez duen esan gura bien arteko talkak desagertu direnik. Batzuetan, alderdiek gizarte-mugimenduen aldarrikapenei bide politikoa eman nahi diete.

Eztabaidagai garrantzitsuen zerrendan, beste bat gaineratu behar da Euskal Herriko kasuan: nazio-markoa. Euskal nazionalismoak subjektiboa den nazioa dauka oinarrian, baina objektiboa litzatekeen Estatuak eraiki nahi du, eta bertako kideak herritar izendatu. Hiru barruti administratibotan (EAE, Nafarroa eta Euskal Elkargoa) aritzeak, ordea, zaildu egiten du modu bateratuan aritzea, eta are *naziokide* eta *herritar* terminoak modu bateratuan ulertzea ere, eraikitako nazio-estatuak egiten duen bezala. Jarrera kontraesankorra agertzen da batzuetan. Euskal nazionalismoak euskal naziotasun kolektiboa eta subjektiboa aldarrikatzen du, eta teoriarik Estatuak emango lukeen herritartasuna erreibindikatzeko du, baina Estaturik osatzen ez duenez, mesfidati agertzen da herritartasunarekiko, beronek euskal nazionalistaren espainiartasuna edo frantziartasuna agerrarazten baitu.

Euskal Herriko markoa, beraz, kontraesan eta tirabira askoren agertokia da, batzuk orokorrak, beste herrialde batzuetan bezala, baina mugimendu nazionalista indartsu batek sortutakoak besteak. Tirabira sortzen da, esate baterako, gizarte-mugimendu batek bere gaiari mundu-mailan lehentasuna eman nahi dionean, eta mugimendu nazionalistak mugatzera jotzen duen nazio-markoa argi ezarri nahi duenean. Talka gertatzen da orobat gizarte-mugimenduek komunikatzeko erabil dezaketen hizkuntza erabilienaren (gaztelania edo frantsesa) eta gutxiengoan dagoen hizkuntza (euskara) bultzatzeko egiten den ahaleginaren artean.

Tirabira horiek asko hazi dira herritartasunaz hitz egitean ere. Izan ere, Estatuaren administrazio-kontua zen heinean, ezkerrek ez dio gai honi garrantzi handirik eman Europan (bai, ordea, Estaturik gabeko nazioetan). Baina urrundik etorritako etorkinen ugalketarekin herritartasunaren gaiak bestelako protagonismoa hartu du, eta kontraesan berriak piztu ditu Estatu batek bermatu behar duen berdintasun-mailaren (objektiboa) eta aniztasunaren izenean erreibindikatzeko den berezitasunaren zainketaren artean (subjektibitate bakoitzak eraiki beharrekoa).

Era horretara, herritartasun-paperak lortzeko Estatuak ezartzen dituzten oztopoen aurrean, etorkinen aldeko mugimenduek paper horiek modu malguan ematea eskatu dutenean, eztabaida teorikoa sortu da gai batean baino gehiagotan: zerbait exijitu behar zaie (hizkuntza, balioak, leialtasuna) herritartasuna eskuratu nahi duten etorkinei? Eskubideez gain, herritarrek betebeharrak ere badituzte? Balioez hitz egitean, noren balioez hitz egiten ari gara? Eta Euskal Herriko kasuan, adibidez, zer gertatzen da euskararekin?

3. Ikerketaren aurkezpena eta metodologia

Lan honen helburua da herritartasunaren afera gatazkatsuen aurrean Hego Euskal Herriko mugimendu sozialek garatzen dituzten ikuspegi nagusiak aztertzea. Horretarako, herritartasunaren gai zabalaren baitan, arreta bereziki jarri da herritartasunaren adiera objektibo eta subjektiboan, batetik, eta gaiaren

izaera indibidualean nahiz kolektiboan, bestetik. Gai horiek, betiere, aukeratutako mugimendu sozialen ikuspegietatik aztertzen dira.

Lan hau, bada, ikerketa zabalago baten baitan kokatzen da. Hego Euskal Herrian gizarte-mugimenduek bultzatutako zenbait praktika esanguratsu (emakumeen etxeak, etorkinen harrera-sareak, euskalgintzako herri-mailako taldeak, ekimen sozioekologikoak...) aztertzen dira proiektu zabal horretan, eta bereziki mugimendu horien artean sortzen diren elkarreraginak eta aliantzak. Ikerketa zabal horren baitako atal bat da herritartasunaren gaia aztertzen duena, baina,aldi berean, aipatutako ekimen horien guztien azterketan presente dago herritartasunaren afera, ikerketa-proiektu honen zeharkako gai gisa. Izan ere, praktika sozial eta aliantza horien bidez, herritartasuna ulertzeko modu berriak sortzen ote diren aztertzea da xedea (ikus Esteban, 2020).

Proiektu zabal horren baitako atal gisa, herritartasunaren afera aztertzeko lau gizarte-mugimendutan jarri dugu arreta lan honetan: feminismoan, euskalgintzan, migrazioen mugimenduan³ eta sozioekologian. Mugimendu sozial andanaren baitan, laurak partekatzen dute, intentsitate desberdinarekin, mugimendu *emergenteak* izatea (modu bereziki argian feminismoaren edota ekologismoaren kasuan), eta Euskal Herrian itzal luzekoak izatea. Edonola ere, lan honetan ez da bilatzen mugimendu horien erradiografiarik egin edo barne-ildoak aztertzea, haien baitan aniztasuna handia baita. Aitzitik, herritartasunaren gaia gizarte-mugimenduetatik nola ikusten den aztertzeko adibide esanguratsu gisa aukeratu dira.

Lan honen helburua mugimendu sozialen ikuspegietara gerturatzea izanik, beraz, ikuspegi kualitatiboa erabili da; eta, horren baitan, erabilitako ikerketa-teknikak sakoneko elkarrizketa eta eztabaida-taldea izan dira. Halaber, aipatutako ikerketa zabal horrek ere eragina izan du azterketarako erabilitako iturri enpirikoetan. Izan ere, preseski herritartasuna aztertzeko elkarrizketak erabiltzeaz gain, proiektuko beste ataletan egindako elkarrizketak ere erabili dira herritartasuna hizpide zenean, gaiari buruzko diskurtsoa aberasteko asmoz. Ikerketaren diseinuaren azalpenean, bada, bi maila horiek bereiziko ditugu: proiektuaren baitan herritartasuna aztergai zuen atala, batetik, eta mugimendu sozialen arteko aliantzak aztergai dituen proiektu zabala, bestetik.

Lehenengo mailan, herritartasunari lotutako ikerketaren atalari dagokionez, 8 sakoneko elkarrizketa eta eztabaida-talde bat dira lan honen oinarria. Elkarrizketei dagokienez, aukeratutako gizarte-mugimendu bakoitzetik (feminismoa, euskalgintza, migrazioak eta sozioekologia) bi pertsona⁴ esanguratsu elkarrizketatu dira (ikus 1. taula). Elkarrizketak Bilbon, Gasteizen, Iruñean, Irunen eta Getxon egin dira⁵. Lagun horien profila bikoitza izan da. Batetik, gaiari buruz ezagutza teorikoa duten lagunak elkarrizketatu ditugu (gaia akademikoki landu dutelako, eskarmentu handia dutelako, etab.); eta, horrekin batera, denek dute mugimendu horietakoren batekin lotura ekintzailea.

3. Hala deitu diogu, oro har, migratzaileekin lan egiten duen mugimenduari.

4. Euskalgintzaren kasuan izan ezik, zeinean hiru izan baitira, bigarren elkarrizketan bi lagunek parte hartu zuten eta.

5. Elkarrizketak 2019ko ekainaren eta 2020ko martxoaren artean egin dira.

1. taula. Sakoneko elkarrizketen ezaugarriak

Feminismoa	Feminismoa-1 <ul style="list-style-type: none"> – Emakumea – 30 urte inguru – Mugimendu feministako kidea, ikertzaile feminista unibertsitatean 	Feminismoa-2 <ul style="list-style-type: none"> – Emakumea – 45 urte inguru – Eskarmentu handia mugimendu feministan. Ardura-postuak mugimenduan. Berdintasun-arloko teknikaria
Euskalgintza	Euskalgintza-1 <ul style="list-style-type: none"> – Gizona – 55 urte inguru – Ardura-postuak euskalgintzan. Ardura-postuak erakundeetan, euskararen alorrean 	Euskalgintza-2 <ul style="list-style-type: none"> – Emakumeak (2 lagun) – 35 urte inguru – Tokiko euskara-elkarteko kidea
Migrazioak	Migrazioak-1 <ul style="list-style-type: none"> – Gizona – 50 urte inguru – Migrazio- eta hizkuntza-gaietan ikertzailea. Migrazio-arloko teknikaria 	Migrazioak-2 <ul style="list-style-type: none"> – Emakumea – 50 urte inguru – Etorrinen harrera-sare bateko kidea, <i>SOS Arrazakeriako</i> kidea
Sozioekologia	Sozioekologia-1 <ul style="list-style-type: none"> – Gizona – 60 urte inguru – Mugimendu antinuklearretik hasita, ibilbide luzekoa ekologismoan 	Sozioekologia-2 <ul style="list-style-type: none"> – Emakumea – 60 urte inguru – Ekofeminismoaren ildoaren baitako ekintzailea.

Iturria: guk egina.

Eztabaida-taldeari dagokionez, aztergai ditugun mugimenduetako lagunek hartu dute parte⁶; eta taldea migrazioekin lotutako mugimendu sozialetako kide diren lagunek osatu dute (ikus 2. taula). Migrazioekin hartu-emanaren duten lagunak bilatu dira gai horrek herritartasunaren aferan duen zentralitatea dela eta. Cyr-ek (2016) azpimarratzen duen bezala, eztabaida-taldeak, elkarrizketak ez bezala, hiru azterketa-maila biltzen ditu barnean: norbanakoarena, banakoaren iritzia jasotzeko erabilia; taldearena, bertan lortzen den adostasuna behatzen duena; eta elkarrekintzaren maila, taldeko kideen arteko hartu-emanak aztergai dituena. *Focus group* honen bidez, bada, elkarrizketen bidez lortutako ikuspegi eta diskurtsoak

6. Eztabaida-taldearen bilera 2018ko ekainean egin zen, Donostian.

osatu nahi izan dira, batik bat profil desberdineko lagunen arteko elkarrekintzak sortzen dituen diskurtsoak aztertzeke asmoarekin; eta halako testuinguru batean sortzen den balizko adostasuna behatu ahal izateko.

2. taula. Eztabaida-taldearen ezaugarriak

<ul style="list-style-type: none"> – Kultura-aniztasun gaietan ikertzailea, gizarte-langintzako ikaslea. – Emakumea, 25 urte inguru 	<ul style="list-style-type: none"> – Sindikalista ohia. Immigrazio-alorrean aritua. – Gizona, 65 urte inguru 	<ul style="list-style-type: none"> – Gizarte-hezitzailea. Etorkinekin lan egiten du. – Gizona, 35 urte inguru
<ul style="list-style-type: none"> – Kale-hezitzailea. Etorkinekin lan egiten du. – Gizona, 30 urte inguru 	<ul style="list-style-type: none"> – Euskaltegiko irakaslea. Etorkinekin lan egiten du. – Emakumea, 55 urte inguru 	<ul style="list-style-type: none"> – Museo bateko hezkuntza-arduraduna. Etorkinekin lan egiten du. – Emakumea, 35 urte inguru

Iturria: guk egina.

Ikerketaren maila zabalari lotuta, mugimendu sozialen arteko aliantzak aztertzeke antolatu diren behaketen baitan egindako elkarrizketak ere izan ditugu aztergai⁷, eta gure ikuspegia osatzeko erabili ditugu. Elkarrizketa horietan parte hartu duten pertsona motak hauexek izan dira: euskararen arlokoak, migratzaileen eskubideen aldeko elkarteetakoak, herrietan eta Emakumeen Etxeen inguruan dauden feministak eta berdintasunaren arloko teknikariak, ekologiarekin zerikusia duten ekimenetako partaideak, etab. Lan enpiriko zabal horren baitan, herritartasunaren aspektu zehatz hauek aztertzeke, arreta honako elkarrizketetan jarri da (ikus 3. taula):

3. taula. Mugimenduen arteko aliantzei buruzko elkarrizketak

Mugimenduak-1	Mugimenduak-2	Mugimenduak-3	Mugimenduak-4
<p>Euskalgintza</p> <ul style="list-style-type: none"> – Gizona – 65 urte inguru – Errenteria-Orereta 	<p>Feminismoa-Euskalgintza (2 lagun)</p> <ul style="list-style-type: none"> – Emakumeak – 25 eta 48 urte – Arrasate 	<p>Feminismoa</p> <ul style="list-style-type: none"> – Emakumea – 30 urte – Hernani 	<p>Bestelako gizarte-eragileak</p> <ul style="list-style-type: none"> – Gizona – 44 urte – Errenteria-Orereta

Iturria: guk egina.

7. Elkarrizketa hauek 2018ko otsailaren eta urte bereko abuztuaren artean egin ziren, Gipuzkoan (Donostian, Arrasaten, Errenteria-Oreretan eta Hernanin, besteak beste).

Erabilitako ikerketa-teknika hauekin herritartasunaz sortzen diren diskurtso eta ikuspegi nagusiak ezagutu nahi izan dira. Elkarrizketen eta talde-bileraren edukia herritartasunaren alderdi objektiboa nahiz subjektiboa eta izaera indibiduala zein kolektiboa kontuan hartuz aztertu ditugu⁸, Hego Euskal Herriko mugimendu sozialek herritartasunaz garatzen duten diskurtso nagusia arakatzeko asmoz.

4. Analisia: Herritartasunari buruzko ikuspegiak

Esan bezala, gizarte-mugimenduek herritartasunari ematen dioten esangura aztertzeko asmoz, bi ardatz hartu ditugu aztergai ikerketa honetan. Lehen, herritartasun-eskubidea era objektiboan edo subjektiboan definitzeari dagokiona. Gaiaren inguruko literaturan ikusi dugunez, herritartasuna alderdi objektibotik eta subjektibotik azter daitekeen kontzeptu gisa agertzen zaigu. Alderdi objektiboa dimentsio juridikoari loturik egongo litzateke: Estatuak modu formal batean eta ezarritako baldintza batzuen pean, Estatu horretako kideei onartzen dien herritartasun mota izango litzateke, betebeharrak eta eskubideak dituen. Herritartasun subjektiboak, aldiz, gizarte-mugimenduek hobesten dituzten balioen inplementazioa adierazten du, herritarraren emantzipazioarekin lotua. Bigarren horrek arbitrariotasun handiagoa barnebiltzen du, eta elkarrizketatu adina ulerkerak jaso direla esan daiteke.

Bigarren ardatza herritartasuna zentzu indibidualean edo kolektiboan ulertzearen ingurukoa izan da. Batzuentzat herritartasuna norbanakoari lotutako zerbait da, eta beste batzuek, aldiz, era kolektiboan aditzen dute, eta haientzat komunitate bati esleitzen zaion zerbait izango litzateke. Bi ardatzetako eztabaida eta zalantzak ondo islatzen dira Euskal Herriko agertokian.

4.1. Herritartasunaren izaera objektiboaz eta subjektiboaz

Herritartasuna bezalako gai zabal bati izaera objektiboa zein subjektiboa esleitzean, Nork-Zerk galderari erantzuna emateko saiakera agertu da gure elkarrizketatuen artean. Hau da, nork edo zerk ematen du herritar izateko eskubidea? Galdera horren erantzuna irmoago ageri da herritartasunari izaera objektiboa esleitzen zaionean, hots, Estatuari ematen zaionean herritartasuna aitortu eta egikartzeko gaitasuna. Aldiz, aldagarria eta arbitrarioa izan daiteke herritartasunaren ulerkerak subjektiboa denean, eta hori erakutsi dute elkarrizketatuen iritziek.

Objektibotasunetik hasita, aztertu ditugun mugimendu hauek garrantzi handia ematen diote berdintasun kontzeptuari, eta hortik jarraituta, herritartasunaren izaera objektiboa ezinbestekoa dela defendatzen da, horrek eskubide berdinean bermatzen dizkiolako herritar orori. Batik bat Estatuaren herritartasuna ez izateak dakartzan desberdinkeria-egoerak azpimarratzen dira halako iritzietan. Adibidez:

Hay una serie de obstáculos que dificultan una integración real. Uno es la falta o la limitación del derecho de igualdad, a la ciudadanía, como los que regulan la ley de extranjería, que dificulta a través de diferentes regularizaciones la integración como ciudadanos. [...] Tener los mismos derechos, condición primera. Si no, estamos

8. Analisiaren atalean erabilitako aipuen edukia hizkuntza idatziaren ezaugarrietara moldatu da.

hablando de pájaros y flores. [...] Si no se tienen los derechos como todos los demás, hablar de integración o ciudadanía, me parece hablar del sexo de los ángeles (ET).

Herritartasuna dago eskubideetan, eskubide berberak eduki behar [dira], ez? Eduki behar dira, hori da herritar izatea, eskubide zibil, politiko, sozial, ekonomiko, kultural... Eskubide horiek bermatu behar dira herritartasuna gauzatu ahal izateko, eta horrek jotzen du zuzen-zuzenean estrukturara (Mugimenduak-1).

Herritartasunaren maila objektibo horrek dituen ageriko ondorioekin batera, baina, gaiari buruzko diskurtsoan zentrala da honako afera: herritar guztiei eskakizun berberak egiten zaizkie? Eta eskakizun horiei aurre egiteko maila edo abiapuntu berean kokatuta daude guztiak? Herrialde berean errealitate askotarikoak dituzten pertsonekin aurkitzen gara; horren adibide argi bat, besteak beste, atzerritarrena izan daiteke.

Euskal Herrian jaio direnen eta atzerritik etorritakoen arteko bereizketa egin, eta horien herritartasunerako abiapuntuak aztertzen baditugu, argi ikusten da lehendabizikoek, salbuespenak salbuespen, herritartasun objektiboak bermatuta duten bitartean, bigarrenek kasu askotan ez dutela berme hori. Zentzu horretan, zenbait elkarrizketatuk azpimarratu bezala, atzerritar horiei herritartasun subjektiboago bati loturiko ezaugarriak galdegitea zaila da; zaila da, esaterako, komunitate bati lotutako identitate kolektiboak irakitzeko eta indartzen laguntzen duten ekimenetan parte har dezatela eskatzea, aurrez herritartasun objektiboari loturiko eskubideak bermatzen ez bazaizkie. Izan ere, gaur egun eskubide horiek dira juridikoki egoera erregularrean egotea eta hainbat esparrutarako sarbide formala ahalbidetzen dutenak.

Beraz, lehen eta oinarrizko baldintzat hartzen da juridikoki —hots, Estatuaren aldetik— herritar gisa onartua izatea:

Azken finean eskubide politikoak dira hiritartasunaren oinarri bat, ez? Non guk beti esan dugu, paperak dira oinarrizkoak hiritartasunerako, parte hartzerako eta inklusiorako. Paperik ez baldin badaukazu, nola da? «Muerte civil». Ez zaude. Ez, orduan ezin duguna exigitu da pertsona bati parte hartzeko, integratzeko. [...] Orduan, hiritartasuna zer da? Eskubideak. Eskubide politikoak. [...] Ezin diozu pertsona bati parte hartzeko eskatu, bigarren mailako liga batean jokatzeko daukazunean. Nik beti izango ditut eskubide gehiago eta beti parte hartuko dut gehiago edozein gauzatan. Nik uste paperen kontua ezin dela alde batera utzi. Ze gainera beraientzako zentrala da. Horrek baldintzatzen du beraien bizitza (Migratioak-2).

Beste zenbait diskurtsotan, ordea, hainbat oztopo antzematen dira herritartasun objektiboaz aritzean. Herritartasun kontzeptuaz hitz egitean ikusi dugu hainbatetan, errealitate anitz horiek kontuan ez hartzeagatik, historian zehar, kritika egin izan zaiola herritartasuna ulertzeko zenbait moduri (kontratu sozialaren ideari, Marshall-en herritartasun sozialari...). Gure elkarrizketatu batzuek antzeko ikuskera kritikoa erakutsi dute. Izan ere, maila ideal bati jarraikiz, herritartasuna munduko biztanle guztiei zor zaiela aho batez hobesten da elkarrizketatuen artean, Giza Eskubideen Aldarrikapenean jaso bezala; baina errealitatean herritartasun-eskubide unibertsalik ez dago. Eskubide horiek, praktikan, Estatu bati loturik doaz, eta herritartasuna beti da Estatu-mailakoa. Errealitate horren adibideak, beraz, segituan jartzen dituzte mahai gainean elkarrizketatuek, *errefuxiatuen* gaia aipatuz, adibidez:

Creo que ahora mismo los refugiados nos están demostrando que aquí hay que ganársela. Y es muy triste, porque en principio debería de ser un conjunto o... bueno, o la Declaración de Derechos Humanos y esas cosas establecerían una especie de base universal, ¿no? Sí que creo que forma parte de la aspiración de los humanos y humanas en general, pero luego, en la realidad, este supuesto no se llega realmente a concretar del todo, es decir, el mundo nos está demostrando que a algunas personas se les pide que se lo ganen, que lo demuestren, que incluso se les niega (Sozioekologia-2).

Zentzu horretan, herritartasun objektiboaren ahulezia gisa azpimarratzen da haren etnozentrismoa. Kontzeptu unibertsal gisa agertu arren, ikuspegi horren mugak azpimarratzen dira. Kontzeptua bera sortzetik europar tradizioari lotua joan denez, izaera etnozentriko hori kontzeptuaren muga gisa proiektatzen da, zenbait kasutan.

Giza eskubidea derrepente neurgailu bezala, Europako, holako masakre baten ondoren, onartzen dugu giza eskubideen karta moduko bat eta hori da neurgailu, termometro, gainditzeko ekialdean, kalitatea neurtzeko. Eta berriro jausten gara ere bai neurgailua Europar jartzen, zein den ona eta zein den txarra esateko (ET).

Ildo beretik jarraituta, kontrako ikuspegia ere garatzen da: herritartasuna, eskubideen berme gisa baino gehiago, eliteen mesederako mekanismo gisa ikusten da horrela (Sozioekologia-2, Feminismoa-1). Hori dela eta, ikuspegi ezkor edo konstatazio horretatik abiatuta, izaera juridiko eta administratibotik urrun, herritartasunaren izaera subjektiboa azpimarratzen da maiz gure elkarrizketatuen artean. Izan ere, biztanleriaren zati bat herritartasun-kategoriatik —eta horrek esleitzen dituen eskubideetatik— baztertuta geratzea ekiditeko, herritartasun-kategoria birdefinitzeko beharra mahaigaineratzen da elkarrizketatutako kideen aldetik. Horretan, bereziki azpimarragarria da feminismoaren ekarpena:

Herritartasuna gaur egun hala da, ez? Eskubide eta betebeharrak batzuen inguruan hitz egitea suposatzen du. Nor da herritarra? Nor ez? Hasieratik horrela izan da, ez dakit. Frantziar iraultzatik nolabait eredu hori ari gara arrastratzen, ez dakit, aldaera ezberdinekin historian zehar baina bai markatzen ditu eskubide eta betebeharrak. Eta zentzu horretan funtzionatu izan du estatu-nazioen sorreretan erregulatzeo populazioaren eskubideak eta betebeharrak. Eta orduan, ez dakit guk nahi dugun eredia hori den (Feminismoa-1).

Herritartasunaren kontua ezin dala lotuta egon paper bati. Gainera, uste dut, herritartasunaren aniztasuna planteatu eta landu nahi badugu, badaudela hainbat eta hainbat espazio paperik ez dauzkatenak, eta ez gaude hitz egiten immigrazioaz, genero transitorioa daukaten pertsonak non kokatzen dira? Ez dituzte paperak, edo paperetan jartzen duenak ez du esaten [benetan sentitzen direna] (Feminismoa-2).

Herritartasunaz aritzean funtsezkoa da migrazioaren errealtatea. Izan ere, migratzaileak herritarraren eta atzerritarraren arteko harreman ustez dikotomikoa konplexuago bilakatzen du eta, beraz, gai zentrala da herritartasunaz hitz egitean. Gure elkarrizketatuen artean, bada, immigrazioa gai garrantzitsua izan da, eta horren baitan, gizarteratzea azpimarratu da.

Aurretik aipaturiko ildo etnozentrikoari estuki lotuta agertzen zaigu gizarte hartzailearen aldetik pertsona migratzaileak gizarteratzeko garatzen den jarrera,

hainbat elkarrizketaren ustez. Paradigma etnozentrikoa jarrera asimilazionista baten baitan kokatu ohi denez, hau da, gizarteratze-prozesua *kanpotarrari* edo etorri berriari soilik egotzi ohi zaionez, elkarrizketaren diskurtsoetan integrazio-kontzeptuaren ikuspegi kritikoa gailendu da:

Kolonizazio mental bat [da integrazioa]. Nola ulertzen dut pertsonak utzi behar duela bere motxila, bere jatorria, kultura, hizkuntza alde batera, hona etorri eta enfokatu hemen dagoen errealitatea (ET).

Argazki politikak gustatzen zaizkigu, koloreak eta matizak, asko, baina gero, modifikatu behar dugunean gure etxea eta sukaldea, beste toki batean jarri, ba horrek beldurra ematen digu. Eta hori topatzen dut (Mugimenduak-1).

Asimilazioa alde batera utzi eta aniztasunean jarri beharko litzatekeela fokoa aipatzen da. Nik uste dut hori alde batera utzi dela eta benetan pertsonak, herritarrak, hau da, hemen biztanleak direla babestu behar direnak. Begiratu barik nondik datozen eta nondik ez datozen. Eta hori, horrela jartzen ez den bitartean aniztasun maila horrek ez dakit zenbateraino balioko duen (Mugimenduak-2)

Herritartasun objektiboaren auziak baditu inplikazio zehatzak Euskal Herrian, jadanik aurreratu den moduan. Herritartasuna eta naziotasuna kontzeptu berberak ez izan arren, praktikan batera garatzen dira (herritartasuna Estatu nazionalizatorako tresna den heinean), eta horrek kontraesanak eta gatazkak sortzen ditu Euskal Herria bezalako kasuetan, non nazio-auzia eztabaidagai den. Euskal Herriaren kasu zehatzean jartzen badugu arreta, orain arte ikusitako herritartasun objektiboak planteatzen dituen oztopoei bestelako zailtasunak gehitzen zaizkie, beraz. Izan ere, euskal herritartasun ofizialik ez da existitzen, ez bada lurraldeko kidesun administratiboari loturiko eskubideen zentzuan eta, hortaz, Estatu-mailako herritartasunaren mailaren azpitik. Zentzu horretan, elkarrizketatu batek azaltzen duenez, askotan errealitate hori ez da kontuan hartzen, alegia, kultura-aniztasunaren kudeaketa Euskal Herrian «Estaturik gabeko nazio batetik» egiten dela (Migrazio-1), eta ikuspegi hori kontuan hartzea ezinbestekoa dela defendatzen du. Iritzi hori beste hainbat elkarrizketatan agertutako ideia baten isla da:

Estatuaren konpetentzia da herritartasuna, orduan guk berez, Estaturik gabeko nazio edo errealitate etnokultural bat bezala, herritartasun administratiboaren ikuspuntutik ez daukagu zereginik. Egiten dugu amestu, pentsatu, aldarrikatu zer nahiko genukeen, baina praktika erabat mugatua dago Estatuaren ikuspuntutik (Migrazio-1).

Euskal Herria bezalako errealitateetan herritartasun objektiboak dakartzan gabeziak, eta euskal herritartasun objektiboaren existentziarik ezak, finean, ondorioztat du Euskal Herrian herritartasunari buruzko diskurtsoan alde subjektiboak indarra hartzea. Dena den, gai hau desadostasun-iturri da, izan ere, kontrakoa ere azpimarratzen baita: migratzaile batzuen kasuan, dituen ondorio praktikoko funtsezkoak tarteko, pertsona gisa tratatua izatea eta bertakoekin harremanak edukitzea izan daiteke herritartasunari loturiko xedea, nazio-identitatearen aferatik urrun. Iritzi hori nagusi izan da gure eztabaida-taldean: «Lasai bizitzea, lasai egotea» litzateke atzerritar askok harrera-gizartean bilatzen dutena (ET).

Beste iritzi batzuetan, aldiz, hain justu onarpen ofizial hori falta izanagatik, herritartasun subjektiboa garatzeko beharra azpimarratzen da. Ofizialki onartua ez bada ere, identitate kolektiboa indartzen lagunduko duen tresna gisa ikusten da, orduan, herritartasuna. Euskal Herriko kasuan, herritartasun subjektiboaz ari garenean, hizkuntzak kokagune zentrala eskuratzen du. Euskararen paper hori, herritartasunaren baitan, ez da gai simple moduan ikusten, bere garrantzia nabarmentzen da herritartasun subjektiboari loturik doan identitate kolektiboaren eta kohesio sozialaren auzian:

Herritartasunaren eredu bat, elkarbizitza euskaraz proiektatzen duena. Ez beti, nahi eta nahi ez, euskaraz izango dena, baina euskarara orientatua eta zainduko duena euskaraz jardutea, euskararen jarduna zaintzen duena, praktikarekin, e? Aldarrikapenetik praktikara pasata. Nazio baten markoan, harrotasun batekin, harrokeriak saihestuz, apaltasun batekin. Gurutzatuz hizkuntza, generoa, migrazioen zera, klasea... Esan nahi dut, zehargaiak, ahal bada hierarkiak neutralizatuz. Dena batera kudeatu behar dugu guztiaren zaintza bat eginez (Mugimenduak-4).

Euskara herritartasunaren definizioan osagai objektibo bat izan litekeen arren, gaur egun ez da hala gertatzen, euskarari loturiko herritartasuna batik bat subjektiboa den heinean. Euskara ez da, gaur-gaurkoz, herritartasun objektiboa lortzeko baldintza eta, horrenbestez, ahuldade-egoeran kokatzen da gaztelaniarekiko, Hego Euskal Herrian, azken hori ezinbestekoa baita espainiar herritartasuna —nazionalitatea— eskuratzeko prozesuan. Horrek, elkarrizketatuetako batek azpimarratu legez, euskara gatazkarekin lotzen du batzuetan:

Migratzaile askok euskararekin daukaten bizipena da gatazka bat dagoela [Nafarroako testuinguruaz ari da], gatazka horren erdian beraiek ere sentitzen direla eta orduan azken finean beraiek daukaten bizipena euskararekin da konplexua: «Ostia, baina hemen arazo bat dago eta ni non kokatzen naiz», ez? Eta herritartasunarekin berdin, ez? Herritartasun hori onartua, errekonozitua ez den heinean, ari gara nolabait gatazka den elementu batean kokapena eskatzen (Migrazio-1).

Zer litzateke, bada, herritartasun subjektiboa? Objektiboa definitzeko errazagoa suertatzen zaigu, egoera juridiko-administratiboari lotuta agertzen zaigulako; aldiz, ulerkera subjektiboak ñabardura anitz izan ditzake, bakoitzaren subjektibotasunean aspektu desberdinak barnebiltzen direlako. Zentzu horretan, elkarrizketatu batek dioen bezala, herritartasun subjektiboa jomuga bat izango litzateke, sozialki eraikitzen goazen zerbait. Ideia hori garrantzitsua suertatu da ikerketan parte hartu dutenen artean, zeinentzat herritartasun subjektiboa gaur egungo herritartasun *erreal*a salatzeko bide bat ere baden:

Herritartasuna esan liteke kimera dela. Edo horizonte bat izan liteke. [...] Esaten dugu: «No matarás», baina bizi gara jendarte batean non egunero erailtzen den. Orduan nondik neurtzen duzu hori? Da herritartasuna, ba horizonte bat (ET).

Nik barne gatazka ikaragarriak ditut honen inguruan. Orduan nik gehiago zentratuko nuke agian, bueno bai, eduki behar dugu esaten duzuen horizonte bat, baina agian zentratu behar gara gehiago igual gustatzen ez zaiguna ezabatzen (ET).

Herritartasun subjektiboa, beraz, ulertzen da egungo herritartasunetik zerbait desberdin bezala; baina, halaber, ez da identitate kolektibo baten tresnatzat ikusten, bere baitan, ezinbestean, identitate desberdinei bide eman behar diela adierazten baita: «Identitateari espazioa emateko. Nik esango nuke identitate ezberdinei espazioa uzteko» (ET). Ildo horretatik, identitate desberdinetatik abiatuta, herritartasuna herri-identitatea sortzeko prozesu gisa ere ulertzen da:

Niretzat herritartasuna da, lehenik, herrian bizi den edo ez baino, ea herriaren parte den, bizi den eta herria sortzen duen. Identitatea edo nortasunari lotuta ere badago [herritartasuna]. Baina ez identitate tradizional bati, baizik eta denboran aldatzen, sortzen doan bati, eta herritar guztiek sortzen duguna hein batean (Mugimenduak-3).

Herritartasun subjektiboa, bada, ez da kultura bakar bati lotuta agertzen den zerbait bezala proiektatzen. Gure elkarrizketatuek haren izaera askotarikoa azpimarratu dute, eta pertsona batek komunitate desberdinekin —eta, beraz, herritartasun subjektibo desberdinekin— lotura izateko aukera seinalatzen dute, literatura zientifikoan transnazionalismo deitzen den horren ildotik. Zentzu horretan, herritartasun digitala bezalako kontzeptuak mahaigaineratu dira, errealitate konplexu horri bide emateko aukera gisa:

Zu jaiotzen zara leku batean eta horrek ematen dizkizu lotura batzuk, nahi baldin baduzu, eta zure inguruarekin interaktuatzen baldin baduzu, hor komunitate baten partaide bihurtzen zara. Baina gero izan zenitzake beste atxikimendu batzuk. [...] Nik uste dut gaur egun hautuaren kulturaren bizi garena. Eta zer pasaporte daukagun edo non eman dezakegun bozka edo non egin behar ditugun paperak, horrek ez du asko baldintzatzen. Eta, gainera, izan gaitzake, hautatu dezakegu, atxikitzea, ez gure lurralde fisikoan dagoen proiektu bati, atxiki gaitzake... izan gaitzake hiritar digitalak. Hiritartasun digitala existitzen da eta dagoeneko (Euskalgintza-1).

Herritartasunaren alderdi objektiboaren eta subjektiboaren auziarekin amaitzeko, gure elkarrizketatuek herritartasunaren alderdi subjektiboa azpimarratu dute gizarte-mugimenduentzat eragiteko esparru gisa. Baina,aldi berean, herritartasun objektiboaren indarra ere nabarmendu dute:

Para mí es subjetivo, totalmente. Bueno, eh... subjetivo... debería serlo. [...] En la práctica mi ciudadanía es más objetiva que nada, o sea, tengo el DNI, tengo el pasaporte, tengo el CIF, pero... [...] yo, objetivamente, soy español, ciudadano español. ¿Cómo me siento? No, yo me siento ciudadano del mundo, poquito vasco, menos español todavía, y europeo no lo sé (Sozioekologia-1).

Gehiago subjektiboa dena, identitate bati, herri izaera bati lotutako pertenezia sentimendu hori ere bada... Bai lotuko nuke horrekin herritartasuna eta gehiago... baina hor gehiago plano positiboagoan edo ez dakit nola esan, edo gustatuko litzazukeen horretan eta bueno gaur egun badagoena, e? Ez da desagertu, baina bai esango nuke hegemonikoa [herritartasun objektiboa] gero eta gehiago doala hori ezabatzerara, ez? (Feminismoa-1).

4.2. Herritartasuna eskubide indibidual edota kolektibo gisa

Atal honetan, herritartasuna ulertzeko eta aztertzeko bigarren ardatza landuko dugu: eskubide indibiduala edota kolektiboa. Herritartasunaren inguruan hitz egitean, landa-lanean elkarrizketatutako hainbat eragileren ustez, kontzeptu hori bi maila ezberdinetan uler eta gara daiteke: eskubide indibidual gisa, edo zentzu kolektiboa barnebiltzen duen adigai bezala. Lehenengoaren arabera, herritartasuna pertsona bakoitzari dagokion eskubide indibidual modura ulertu behar da, hasierako eta oinarritzko errekonozimendua emango diona:

Lehenik eta behin paperak eta eskubideak, denok bezala, ezta? Eta hori da hasieran falta dena. Hori da oinarria. Eta hori konpontzen ez den bitartean... (Euskalgintza-2).

Yo creo que la ciudadanía o el derecho a la ciudadanía nace con la persona, independientemente de su cultura, de su lugar de origen, lógicamente de sus posibilidades económicas. [...] La ciudadanía sería un derecho natural de las personas que el Estado, como mucho, puede reconocerlo, pero no lo otorga. [...] Otorga ese derecho a ser ciudadano, a participar, ya digo, independientemente de su origen (Sozioekologia-1).

Eskubide indibidualez aritzean herritartasuna arlo juridikoarekin lotzen da. Oinarri-oinarritik pertsona guztiek, herritar izateko, herritartasuna errekonozitzen duen tresna juridikoaren beharra dute. Arendtek (1998) argudiatu zuen gisara, beste edozein eskubide baino lehen, gizarte demokratiko bati dagozkion eskubideak izateko, herritartasun-eskubidea edukitzea ezinbestekoa da. Hala ere, herritartasuna eskubide indibidualen neurrira definituta, aitortzen da eskubide horiek betetzeko zailtasunak edo oztopoak badaudela eta, horrenbestez, bermatu beharko lukeen pertsona guztien arteko berdintasuna errealtate bilakatzea falta dela. Hori dela eta, herritartasunaren zentzu eta garapena arlo juridikoak markatzen dituen mugez haratago doan zerbaite dela azpimarratzen da. Etorकिनak aipatzen dira eskubide horren bermerik ezaren adibidetzat, eta eskubide horrek bermatu beharko lukeen berdintasun falta nabarmentzen da:

Eskubide politiko berdinak. Berdintasunean parte hartu ahal izatea. Berdintasun guztian. Konpletoan. Uste dut. Zure eskubideak egikaritu ahal izatea, hau da, ez izatea ba... hiritartasuna, uste dut... [...] Ze azken finean hiritartasuna, hori, nire buruan lotzen da batez ere berdintasunarekin. Eskubide berdintasunarekin (Migrazioak-2).

Elkarrizketatuen hitzekin jarraituz, ohartaraz daitekeen ñabardura esanguratsu bat da herritartasunak, eskubide indibiduala izanik ere, zentzu kolektibo bat ere baduela, eskubide horrek komunitatean parte hartzeko ematen duen aukerarekin lotuta dagoena. Herritartasunaren lehen ulerkera indibidual hori, plano kolektiboan kokatzen den bigarren ulerkera garatzeko aurrebaldintza gisa planteatzen da. Izan ere, elkarrizketatu batek argi adierazten duen bezala, herritartasunaren agiri formalak aukera gehiago ematen ditu gizartean parte hartzeko: «[hiritartasuna] yo creo que es un derecho individual, que incluye el derecho a participar, pero no la obligación de participar» (Sozioekologia-1).

Parte-hartzearen inguruko erreferentzia giltzarria da herritartasunari ematen zaion bigarren zentzu hori ulertzeko: eskubide kolektiboa. Izan ere, atxikimendua banakakoa izan arren, askok adierazten dute herritartasunak baduela adiera kolektibo bat, sozialki edo gizarte-mailan eraikitzen den errealitate bat dela esanez:

Nik uste dut kolektiboa dela, gero atxikimendua da banakoarena, baina nik ez... nik beste batzuekin egin nahi ditut gauzak eta besteekin... interakzioa, interakzioa behar da herritartasuna egoteko (Euskalgintza-1).

Pues fijate tú que yo pensaría más bien en colectivo, aunque [la ciudadanía] tenga un impacto muy directo a nivel personal, claro. Pero, la construcción está hecha más desde lo colectivo. A pesar de estar en un mundo muy individualista (Sozioekologia-2).

Nolabait, herritartasuna *parte izatea* —banakakoa, agiri baten bitartez ematen dena— eta *parte hartzea* —kolektiboa, interakzio edo parte-hartzearen bitartez sortzen dena— formulazioen artean mugitzen den kontzeptu gisa ulertzen da:

Zaila da norbaiti esatea parte hartzeko eta... ez? Ba zu hiritarra izan, baina bitartean ez dizut hiritartasun hori aitortzen paperetatik, ez? Edo eskatzen dizkizut hainbat gauza, baino gero ez dizut ezer ematen, ze... Zelan da? [...] Baina bai, lehenik eta behin hiritartasuna eskubide batzuk eduki behar ditugu, ez? Ba, nolabait, hiri horretako parte izateko, eta gero, beste aldetik, besteen moduan nahi izanez gero, parte hartu ahal izateko ideiak edo ikusgarritasuna (Euskalgintza-2).

Dena den, aurreko aipuan esaten den bezala, zentzu kolektibo horretan parte hartzea ez da herritartasunerako baldintzatzat hartzen. Izatekotan, kolektibotasun horren barruan eduki ahal den aukera bat litzateke, onetsi egiten dena, integrazioarako baliozgarria izan daitekeena, baina betiere herritartasunaren eskubide indibiduala murriztu gabe:

El que les ejercite y cómo les ejercite, pues bueno; y el que quiera o no contribuir a ser comunidad, pues bueno, es que es complejo, porque yo creo que... no creo que un ciudadano porque no quiera contribuir a hacer comunidad deba tener menos derechos. Tendrá, quizá, menos oportunidades; sí que va a tener en la práctica menos oportunidades o menos posibilidades de modificar y de participar en las decisiones y en la evolución de esa sociedad, pero bueno... (Sozioekologia-1).

Herritartasunaren maila kolektibo hori garatu ahal izateko gaur egungo testuinguruan dauden zailtasunak ere aipatzen dira gure ikerketan. Egungo jendartearen joerek, gizarteko kideen loturak indartu ordez, disgregazioa eta isolamendua bultzatzen dute. Izan ere, elkarrizketatuen ustez, gaur egungo gizartean indibidualismoak garrantzi handia du, eta herritartasunak duen zentzu kolektibo horri kalte egiten dio:

Me parece que el discurso que sostiene a día de hoy ese estatus de ciudadanía está demasiado enfocado al confort digamos, ¿no? Y en esa lucha de valores entre aquellos valores que están más orientados hacia la seguridad y al logro, y aquellos que están más orientados a la benevolencia y a la apertura, estamos en el de la seguridad y el logro (Sozioekologia-2).

Orokorrean, esan dezagun, interes handiei edo joera nagusiei, *establishment*-ari interesatzen zaiona da desherritartasuna, indibidualtasuna... Indibidualtasuna da, justu nire kontzeptuan herritartasunaren beste muturra: «Zu sartu zaitez zure txokoan, zure zeran, eta gero ezagutu zure ingurune hurbilena, eta gero, hortik aurrera, Cancun, Seychelles edo dena delakoa, baina ez arduratu 10 metro haruntza bizi den horretaz, ez dauka zurekin zerikusirik». Justu, nire planteamendua da hori: kontrakoa. Orduan, hitz nagusia izango litzateke 'aktibotasuna' besteekiko, inguruarekiko eta... eta... Bai, aktibotasuna eta enpatia, bi horiek jarriko nituzke (Euskalgintza-1).

Bai, alde batetik, noski nabaritzen ditugula maila indibidualean oztopo horiek [indibidualismoa], baina bai ulertzen dugu oztopo horiei aurre egiteko ezinbestekoa dela kolektiboa. Bakoitza bere aldetik ezinezkoa da... (Feminismoa-1).

Baina elkarrizketatuek herritartasunaren alderdi kolektiboari aitortzen dioten lehentasunarekiko kontraesanean, gizarte-mugimenduen barnean bertan joera indibidualistak ere pisua hartzen duela adierazi dute elkarrizketatu batzuek. Estebanek (2017) ere azpimarratu duenez, aipatutako dinamikaren erakusgarri da mugimendu sozialetan bertan egiletza kolektiboek indarra galdu izana azken urteetan.

Idea hori nabarmen geratzen da feminismoaren inguruko gizarte-mugimenduetan murgilduta dagoen elkarrizketatu baten hitzetan. Lehen kolektibo baten izenean parte hartzen zen gizarte-ekimenetan, orain, askotan, norberaren izenean, pertsonen izenean. Nostalgiaz gogoratzen du kolektibotasuna indibidualismoari gailentzen zitzaion garai hura, eta hori nola berreskuratu litekeen planteatzen du:

Bai, ni horrekin oso kritikoa naiz. Zu kolektibo baten parte zinen, eta kolektibo horrek parte hartzen zuen espazio ezberdinetan. Espazio ezberdin horietan zu kolektiboaren izenean joaten zinen. Beti egon dira pertsonak eta emakumeak bere izen propioarekin joan direnak, baina orain nik jartzen badizut ponentzia bat X-ena [feminismoaren baitan esanguratsua den pertsona batez ari da] edo Bilgune Feministarena, zeinek dauka pisu gehiago? X-enak (Feminismoa-2).

Elementu kolektibo horiek, gaur egun gero eta gehiago galtzen ari direnak eta ezinbestekoak direnak, nire ustez, herritartasuna eraikitzeko. Nik bai ulertzen dut herritartasuna kolektibo izaera horretatik, eta elkartasun-sareak, babes-sareak... (Feminismoa-1).

5. Ondorioak

Herritartasuna testuinguru historikoaren arabera aldatuz doan kontzeptua dela aipatu dugu arestian, eta aldakortasun horretaz jabetuta, lan honetan kontzeptu hori gaur egun nola ulertzen den aztertzea izan da helburua, Hego Euskal Herriko gizarte-mugimenduen ikuspegietatik abiatuta. Garrantzitsua iruditu zaigu mugimendu horiek herritartasunaz garatzen duten ikuspegia aztertzea, gai honetan historikoki izan duten eraginagatik. Areago, gizarte-mugimenduak herritartasuna sortzen duten eragileak ere badira eta, zentzu horretan, gizarte-mugimendu desberdinek dituzten iritziak aztertzeko, bi ardatz hartu dira kontuan: herritartasunaren alderdi objektiboa eta subjektiboa, batetik, eta gaiaren izaera indibidual eta kolektiboa, bestetik.

Lehen ardatzean, herritartasuna zerbait objektibo ala subjektibo gisa ulertzen den aztertu dugu. Gizarte-mugimenduen ibilbidearekin eta eragin-eremuarekin bat eginda, elkarrizketatu gehienek izaera subjektiboa azpimarratzen dute. Nolabait, herritartasunaren egungo izate erreala baino gehiago, gaiaren ikuspegi normatibo bat lehenesten da: ez *gaur egun dena*, eta bai, ordea, *izan behar lukeena*. Subjektibotasun horretan adiera asko sartzen dira, eta zaila litzateke iritzi bakar eta bateratua ateratzea. Hala ere, etorkinen kopurua handitzeak eta herritartasuna eskuratzeko Estatuak ezarritako baldintza objektiboak ezin betetzeak garrantzia eskuratu dute herritartasunari buruzko diskurtsoan, baita hainbat kontraesan eragin ere. Zentzu horretan, zalantzak nabaritzen dira galderaren arabera: herritartasuna zerbait subjektibotzat hartzen da gizarte-mugimenduetan, betebeharrak batzuei lotua askotan (parte-hartze soziala edo politikoa, komunitatearekiko lotura, etab.); baina, aldi berean, etorkin guztiei zabaldu nahi zaiela adierazten da, betebeharrak desagertuz horrela, eta modu unibertsalean ulertutako herritartasuna irudikatuz.

Desberdintasunak ere atzeman dira, ordea, aztertutako gizarte-mugimenduen artean, besteak beste, euretako bakoitzak leku desberdinean jartzen duelako arreta nagusia, nahiz eta alorren arteko loturak eta elkarreraginak ere garrantzitsuak badiren: genero-berdintasunean, natura-testuinguru jasangarri bat eraikitzean, euskararen indartzean, edo aniztasunean oinarritutako bizikidetzan. Horrela, elkarrizketatutako kide guztiek jartzen dute *betebehar* gisa gizarte-eraldaketarako konpromisoa, eta denek egiten dituzte erreibindikazioak instituzioen aurrean, baina desberdin jokutzen dute, herritartasunaren gai zehatzean, zentralizat duten gaiaren arabera. Lan honen muina izan gabe, pentsa liteke agian kontraesanak eta tentsioak sor litezkeela mugimenduen artean gai desberdinei eman beharreko garrantzi eta lehentasunak ezartzeko momentuan; hortaz, herritartasunari buruz egindako azterketa honek aurrera begirako galdera berriak ireki ditu.

Aurreko guztiari herritartasunaren eta naziotasunaren arteko hartu-eman konplexua gehitzen zaio Euskal Herriaren kasuan. Herritartasun objektiboa Espainiako Estatuak aitortzen du Hego Euskal Herrian, eta nazio-identitate eta kultura espainiarrarekiko eskakizunak egiten ditu, betebeharrak ekonomiko ugariarekin batera; juridikoki irregular egotea edo paperak eskuratzea espainiar herritartasunari lotuta dago, beraz. Horrek arazo bikoitza sortzen die etorkinen alde ari diren Euskal Herriko mugimendu askori: batetik, espainiar herritartasun objektiboa erreibindikatu beharra; eta, bestetik, maila subjektiboan bestelako herritartasun edo naziotasunaren bat —euskal herritarra— landu nahi izatea. Edonola ere, naziotasunaren eta herritartasunaren arteko lotura zalantza-gunea da hainbat kasutan, aldarrikatzen den biztanle guztientzako herritartasun unibertsalaren eta halabeharrez lurralde-eskala zehatzean gauzatu behar den naziotasun mugatuaren arteko hartu-emana konplexua den heinean.

Ildo horretan, eta bigarren ardatzari dagokionez, herritartasuna zentzu kolektiboan ala indibidualean ulertzen ote den aztertu dugu. Gizarte-mugimenduen ikuskera klasikoan herritartasunak zentzu kolektiboa eta subjektiboa, edukiko luke, komunitate bateko kideek proiektu kolektibo baten parte sentitzea adieraziko lukeen neurrian. Horren parean, juridikoki objektibatua den herritartasuna legoke, baldintza

batzuk betetzen dituen norbanakoari bakarrik eskaintzen zaiona. Aurreko ardatzean esan bezala, konpromisoa eta parte-hartzea mugimendu guztiak onartzen badituzte ere, etorkinen aldeko mugimenduek herritartasunaren adiera zabala azpimarratzen dute, biztanle guztiarentzako unibertsa dena. Kontraesana agertzen da, beraz, gaiaren arabera: teorian konpromisoa ipintzen dute herritartasunaren neurgailu gisa, baina praktikan ez dute biztanlerik herritartasun juridikorik gabe utzi nahi. Neurri batean herritartasunaren zentzua erdibituta egongo balitz bezala jokatzeko da: juridikoa den neurrian, biztanle orori onartzea nahiko lukete, naziotasunean edo betebeharreran erreparatu gabe; baina, horrekin batera, herritartasunaren izaera normatiboa ere azpimarratzen da, gizarte-mugimenduek euren ezaugarritzat duten konpromiso sozialari loturik.

Herritartasun kontzeptuaren aldakortasuna eta izaera konplexua nabarmendu dira aztertu ditugun Hego Euskal Herriko gizarte-mugimenduen artean. Herritartasunari buruzko diskurtsoak, neurri batean, bi muturren artean mugitzen dira, eta hortik sortzen dira zalantzak. Alde batetik, gizarte-mugimendu diren heinean, partaidetza soziopolitikoak bultzatzea dute helburu, eta herritartasun subjektiboa hobesten dute; baina bestetik, berdintasuna ere balio zentralizat duten heinean, herritartasun objektiboak ere indarra hartzen du. Bi polo horiez gain, Euskal Herriko kasuan herritartasunaren eta naziotasunaren arteko hartu-eman konplexuak ere eragina du diskurtso honetan guztian, finean herritartasun objektiboaren —Estatuak aitortzen duenaren— eta subjektiboaren —herritar gisa sentitzen den nazio-identitateari loturik doanaren— arteko tentsioa nabaria baita gai honetan.

Bibliografia

- Alonso, Luis Enrique (2007): *La crisis de la ciudadanía laboral*, Anthropos,artzelona.
- Apalategi, Jokin (zuz.) (1992a): *Movimientos sociales y nacionalismo*, Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua, Vitoria/Gasteiz
- Apalategi, Jokin (1992b): «Movimientos asociativos, movimientos sociales y movimientos de liberación nacional», in Jokin Apalategi (zuz.), *Movimientos sociales y nacionalismo*, Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua, Vitoria/Gasteiz, 17-51.
- _____, (1992c): *Sociología de una nación en movimiento*, Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua, Vitoria/Gasteiz
- _____, (1999): *Psicosociología de los movimientos asociativos vascos: sus representaciones sociales*, Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua, Vitoria/Gasteiz
- Arendt, Hannah (1998): *Los orígenes del totalitarismo*, Taurus, Madril.
- Billig, Michael (1995): *Banal Nationalism*, Sage, Londres.
- Cachón, Lorenzo (2009): *La «España inmigrante»: marco discriminatorio, mercado de trabajo y políticas de integración*. Anthropos, Rubí (artzelona).
- Cornell, Drucilla eta Benhabib, Seyla (1990): *Teoría Feminista y Teoría Crítica: Ensayos sobre la política de género en las sociedades del capitalismo tardío*, Edicions Alfons el Magnànim, Valentzia.
- Cyr, Jennifer (2016): «The Pitfalls and Promise of Focus Groups as a Data Collection Method», *Sociological Methods & Research*, 45(2), 231-259 [DOI:10.1177/0049124115570065].

- Esteban, Mari Luz (2017): *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*, Susa, Zarautz.
- Esteban, Mari Luz (zuz.) (2020): *Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik*, UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Domènech, Antoni (2019): *El eclipse de la fraternidad: una revisión republicana de la tradición socialista*, 2. edizioa, Akal, Madril.
- Feixa, Carles; Pereira, Inés eta Juris, Jeffrey S. (2009): «Global citizenship and the 'New, new' social movements: Iberian connections», *Young*, 17(4), 421-442 [DOI:10.1177/110330880901700405].
- Gil, Sandra (2006): *Las argucias de la integración. Construcción nacional y gobierno de lo social a través de las políticas de integración de inmigrantes. Los casos de Cataluña y Madrid*, Doktorego Tesia, Universidad Complutense de Madrid, Madril.
- Imaz, Jose Inazio (2019): *Hezkuntzaren Soziologia*, UEU, Bilbo.
- Insin, Engin. F. eta Turner, Bryan S. (2007): «Investigating citizenship: An agenda for citizenship studies», *Citizenship Studies*, 11(1), 5-17 [DOI:10.1080/13621020601099773].
- Islar, Mine eta Irgil, Ezgi (2018): «Grassroots practices of citizenship and politicization in the urban: The case of right to the city initiatives in Barcelona», *Citizenship Studies*, 22(5), 491-506 [DOI:10.1080/13621025.2018.1477919].
- Lewis, Jane (2002): «Gender and welfare state change», *European Societies*, 4(4), 331-357 [DOI:10.1080/1461669022000022324].
- Lister, Ruth (2007): «Inclusive citizenship: Realizing the potential», *Citizenship Studies*, 11(1), 49-61 [DOI:10.1080/13621020601099856].
- López, Ana María (2005): *Inmigrantes y estados. La respuesta política ante la cuestión migratoria*, Anthropos, Rubí (Bartzelona).
- Marshall, Thomas H. (1997): «Ciudadanía y clase social», *Reis*, 79, 297-344.
- Martinez, Zesar; Casado, Beatriz eta Ibarra, Pedro (2012): «Movimientos sociales y procesos emancipadores», *Cuadernos De Trabajo Hegoa*, 57, 1-39.
- Mezzadra, Sandro eta Neumann, Mario (2019): *Clase y diversidad. Sin trampas*, Katakarak, Iruñea.
- Offe, Claus (1988): *Partidos políticos y nuevos movimientos sociales*, Sistema, Madril.
- Pateman, Carole (2018 [1988]): *Kontratu sexuala*, Jakin/Elkar, Donostia.
- Phillips, Anne (1991): *Engendering democracy*, Pennsylvania State University Press, Pennsylvania.
- Pleyers, Geoffrey (2019): *Movimientos sociales en el siglo XXI*, Icaria, Bartzelona.
- Purcell, Mark (2003): «Citizenship and the right to the global city: Reimagining the capitalist world order», *International Journal of Urban and Regional Research*, 27(3), 564-590 [DOI:10.1111/1468-2427.00467].
- Sayad, Abdelmalek (2010): *La doble ausencia. De las ilusiones del emigrado a los padecimientos del inmigrado*, Anthropos, Rubí (Bartzelona).
- Santos, Boaventura de Sousa (1998): *De la mano de Alicia: lo social y lo político en la postmodernidad*, Ediciones Uniandes, Bogota.
- Soysal, Yasemin (2010): «Hacia un modelo de pertenencia posnacional», in Yasemin Soysal et al. (ed.), *Ciudadanía sin nación*, Siglo del Hombre, Bogota, 123-174.
- Taylor, Lucy eta Wilson, Fiona (2004): «The messiness of everyday life: Exploring key themes in Latin American citizenship studies introduction», *Bulletin of Latin American Research*, 23(2), 154-164 [DOI:10.1111/j.1470-9856.2004.00101.x].
- Tilly, Charles eta Wood, Lesley J. (2009): *Los movimientos sociales, 1768-2008. Desde sus orígenes a Facebook*, Crítica, Bartzelona.
- Triandafyllidou, Anna (2001): *Immigrants and National Identity in Europe*, Routledge, Londres.
- Vertovec, Steven (1999): «Conceiving and researching transnationalism», *Ethnic and Racial Studies*, 22(2), 447-462 [DOI: 10.1080/014198799329558].

Wood, Bronwyn Elisabeth (2013): «Young people's emotional geographies of citizenship participation: Spatial and relational insights», *Emotion, Space and Society*, 9, 50-58 [DOI: 10.1016/j.emospa.2013.02.004].

Zapata-Barrero, Ricard (2004): *Multiculturalidad e inmigración*. Síntesis, Madril.

